

## **Kultura Sailak Ignacio Aldecoa eta Ernestina de Champourcin literatura lehiaketan aurtengo deialdiak argitaratuko ditu**

*Bihar argitaratuko dira ALHAOn, eta parte hartu nahi dutenek abuztuaren 20ra arte izango dute horretarako aukera*

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 8a.** Ana del Valek zuzentzen duen Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketa eta Ernestina de Champourcin poesia lehiaketa tradizionalen aurtengo deialdiak argitaratuko ditu.

Aurtengo berrikuntza nagusia da Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketako modalitate bakoitzak bere deialdia eta oinarri espezifikokoak izango dituela, hizkuntza bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta, eta Del Valek adierazi duenez, “gai hori bi epaimahaiekin eta literaturan, hizkuntzalaritzan eta edizioan adituak diren editoreekin hausnartu eta aztertu da”.

Hortaz, aurten 50. edizioa izango duen Ignacio Aldecoa sariaren gaztelaniazko ipuin lehiaketaren kasuan, oinarriek beritasunak dituzte eta “ipuin edo kontakizun laburren esparruan lan egiten ari direnei laguntza ematea” dute helburu, foru arduradunak adierazi duenaren arabera.

Horrela, lehiakideek gutxienez 20.000 hitzeko ipuin bilduma bat aurkeztu beharko dute, eta bildumako ipuin bat aukeratu beharko dute lehiaketarako. Epaimahaiak, zalantzarik izanez gero, bilduma osoa aztertu ahal izango du, erabakia hartzeko. “Horrekin, hautagai kopurua arrazoizkoa izatea lortu nahi dugu, aurreko urteetan mila inguru izan baitziren, baina, batez ere, lanak bilduma batean, ibilbide komertziala izango duen liburu batean, argitaratzea da helburua”, azpimarratu du diputatuak.

Izan ere, saritutako lana eta lehiaketara bidalitako ipuin bilduma argitaratuko ditu Arabako Foru Aldundiak, argitaletxe ospetsu batekin batera, eta gaztelaniaz egiten den lekuetan zabalduko dute. “Helburu nagusia lehiaketari bultzada ematea da, eta nazioartean ikusgarritasuna sustatzea, testuen kalitatea hobea izan dadin saiatuz”, adierazi du Del Valek.

Alicia Gimenez Bartlett, Manuel Vilas, Sara Mesa eta Antonio Altarriba dira prestigio handiko epaimahaiaren kideak. Irabazleak 6.000 euro jasoko ditu.

Aurten 42. edizioa izango duen Ignacio Aldecoa euskarazko ipuin lehiaketaren oinarriak 1980az geroztik izan diren berberak izango dira. Lehiakideek 10 eta 25 orrialde arteko ipuina aurkeztu beharko dute, Arial 12 edo antzeko letra motan idatzita, eta ipuinik onenak 6.000 euroko saria irabaziko du. Testuak aurkezteko epea berbera izango da: abuztuaren 20a, eta lan irabazlea argitaratu egingo dute. Epaimahaikideak Katixa Agirre, Alex Gurrutxaga eta Iban Zaldúa dira.

Azkenik, Ernestina de Champourcin poesia lehiaketaren 31. edizioa izango da aurten. 1994az geroztik egin den bezala, bi hizkuntza modalitateen deialdia argitaratu da. 500 eta 700 bertso arteko poema sorta aurkeztu beharko dute lehiakideek; epaimahaiak kategoria bakoitzeko onena aukeratuko du, eta bakoitzak 2.000 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea abuztuaren 20a da kasu honetan ere. Epaimahaia Rosa Lentinik, Angel Errok eta Kepa Muruak osatzen dute.